

LIBURUAK

Izenburuak: 'Heroi bat sortu da!' eta 'Heroi bat misioan!'. **Testuak:** Maeve Friel. **Marrazkiak:** Joelle Dreidemy. **Itzulpena:** Itziar Otegi. **Orrialde kopurua:** 176na orrialde. **Argitaletxea:** Desclee.

Itziar Otegi

ITZULTZAILEA

«Irakurriz gozatzeko moduko liburuak dira bildumakoak»

Eguna liburuak irakurtzen igaroko luke Tiger Lily, bildumako protagonista nagusiak. Liburuzale amorratua da; tira, liburuzalea baino gehiago liburujalea da Tiger Lily. Hainbeste irakurtzearen ondorioz, piraten istorioz, abenturez eta ametsez beterik du burua gatzetxoak. Buruan bueltaka dituen amets horietako batzuk egia bihurtzen saiatzen da batzuetan.

Tiger Lily da bildumako protagonista. Nor da?

Lily Larkin 10 urte inguruko neska bat da. Pikutako Baztergaldun bizi da, berak dioen bezala, inoiz ezer gertatzen ez den herritxo batean, amarekin, liburuz lepo beteta dagoen etxe batean, biak ere liburuzale amorratuak baitira. Ile gorriak eta harro-harroa du, tigreen modura, eta horregatik esaten diote Tiger. Heroi izan nahi du, irakurtzen dituen liburuak bezalakoa, eta haienak bezalako abenturak bizi, baina, errealitatean, liburuetan ez bezalako bideak hartzen dizkiote gauzak.

Zein abentura kontatzen dira?

Lehenengoan, herriko gizarte etxe berria behar bezala inauguratzeko, jaialdi berezi bat antolatu nahi dute. Eta, kanpoko jendea herrira erakartzeko, rock izar bat ekartzen saiatuko dira. Gauzak ez dira, or-



dea, espero bezala irteten, eta anabasa handi samarra sortuko da. Bigarrenetan, hannibalдарrek txakur-trebatze ikastaro bat antolatu dute, eta ikastaro hori egitea da Tigerrentzat Rosie (bere txakur berezitxoa) ez galtzeko aukera bakarra, bestela amak txakur egoitza batera bidaliko du. Baina hannibalдарrek etxaldera ekarri dituzten basurde batzuk «matxinatu» egingo dira, eta sekulako triskantzak eta arazoak eragingo dituzte. Tigerren ausardia eta diplomaziarako abilezia ezinbestekoak izango dira gauzak konpontzeko.

Liburuak irakurtzea da Tiger Lilyren zaletasunetako bat, eta, ondorioz, hainbat ipuinen zatiak txertatzen dira liburuetan.

Bai, haur eta gazte literaturako liburu interesgarri asko aipatzen dira, eta haietatik hartutako pertsonaiak, pasarteak eta beste-lako aipamenak: *Altxor Uhartea*, *Huckleberry Finn*, *Hamelingo Txirularia*, *Uda-gau bateko ametsa...* Ipuinak ipuinen barruan, beraz.

Ipuinekin batera, badira irakurketa arintzen duten hainbat elementu.

Hala da, bai, mezu elektronikoak, kartelak, eguneroko zatiak txertatzen dira, eta horrek entretenigarria eta bizia egiten du irakurketa. Egunkarietako albisteak eta iritzi artikulua, bake itun bat lortzeko bide orri bat eta halakoak ere ageri dira. Irakurketa aberatsa eta originala osatzen dute denon artean.

Nolako liburuak dira?

Irakurriz gozatzeko modukoak, eta beste ipuin eta nobela ezaugarri eta bikain batzuk irakurtzeko gogoak pitz dezaketenak. Bestalde, guraso askoren «literatur gordailua» seme-alabengana hurbiltzen ere lagun dezakete. Izan ere, literatur erreferentzia eta aipamen askok gurasoei zuzendutakoak dirudite. Beharbada, gurasoek eta seme-alabek irakurzaletasunean bat egin dezaten-edo egiten da hori.

Erraz sartu zara Tiger Lilyren eta Pikutako Baztergalduko munduan?

Erronka politak jarri dizkit itzulpen honek: batetik, hainbat erregistro agertzen direlako (egunkarietako albisteak, mezu elektronikoak, bake itunak, *Hamelingo txirularia*-ren bertsio berezi bat poesian, *Uda-gau bateko ametsa*-ren pasarteak...); bestetik, literatur erreferentzia eta hitz-joko asko dago, eta horietako batzuek buruhauste bat edo beste eman didate. Gainera, jada euskarara itzulita dauden obren kasuan, hala nola *Altxor Uhartea*, *Huckleberry Finn* eta *Uda-gau bateko ametsa*, euskararako itzulpenak baliatu ditut, ahal den neurrian gure «tradizioa» erabiltzearen. Liburutegietan ordu ugari eman ditut horretarako, baina aberasgarria izan da oso.

Azkenik, oso erraz identifikatu naiz Tiger Lily eta haren amarekin, niri ere asko gustatzen baitzait irakurtzea. Biziki lan interesgarria izan da.